

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aintzane Ezenarro Egurbide**, Aralar legbiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **interpelazioa** egiten dio **Patxi López** Lehendakariari, **“Emakume eta Gizonen Defentsoriak komunikabideetan agertzen diren sexu harremanen gaineko iragarkiei”** buruz, osoko bilkuran erantzuteko.

### ZIOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoriak, 2008ko urteko txostenean jaso duenez, bost egunkarik argitaratzen dituzten harreman eta zerbitzu sexualei buruzko iragarkiak aztertu ditu: *Deia* (D/35/2008), *Diario Vasco* (D/42/2008), *El Correo* (D/43/2008), *Diario de Noticias de Alava* (D/44/2008) eta *Noticias de Gipuzkoa* (D/45/2008). Defentsoriaren arabera, egindako ofiziozko ikerketa guztien ebazpena, “zuzeneko diskriminazioa” gertatzen da egunkari guztietan. Bost kasuetan, Defentsoriak dio:

*Sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa egiten du harremanetarako iragarkietan eguneroko edizioetan, emakumeak sexu objektu soil gisa aurkezten dituelako eta emakumearen irudia gure ordenamendu juridikoa urratzen duten mendeen jartzeko eta azpiratzeko portaera estereotipatuei lotuta erabiltzen dutelako.*

Errealitate horren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak hokako gomendioa hauek eman dizkie egunkariei:

*1/ Besteen prostituzioaren bitartekariak egindako iragarkien argitaratzea bertan behera uztea, eta edozein kasutan, emakumeak sexu-objektu soil gisa aurkezten dituztenak, emakumeen funtzio estereotipatuak indartzen dituztenak, baita emakumeen irudi laidogarri edo iraingarriak ere, ez argitaratzea.*

*2/ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako arloan autoerregulatzeko kode bat lantzea, jendearen pertzepzioan estereotipo sexistak aldatzen eta gizonen eta emakumeen irudi objektibo bat aurkezten laguntzeko, arreta berezia eskainiz publizitateari eta, horren barruan, sexu-harremanetarako publizitatearen trataerari.*

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako 4/2005 legearen V. tituluari, jasotzen diren "Arau hausteak eta zehazpenak" ataleko 82. artikuluan esaten denez: *“Lege honetan zehazten diren arau-hausteengatiko zehazpenak ezartzeko eskumena duten agintariak honakoak izango dira:*

*a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendaria, arau-hauste arinengatiko zehazpenak ezartzeko*

b) *Jaurlaritzaren Kontseilua, arau-hauste larri eta oso larriengatiko zehazpenak ezartzeko*”

Defentsoriak 2008ko txostenean jasotzen dituen ebazpenen berri bai gobernu kontseiluari zein Emakunderi jakinarazi dio, baina oraingoz behintzat ez bata ez besteak ez dute inongo erabakirik hartu.

Kontuan izanik Europan interes orokorreko egunkarien kasuan, espainiar estatuko egunkariak direla, era horretako iragarkiak kaleratzen dituzten bakarrenetarikoa, ezinbestekoa deritzogu Eusko Jaurlaritzaren arduradun nagusiak horren gainean zere gin asmo duen ezagutzea. Hori dela eta, hurrengo interpelazioa egiten dio Patxi Lopez Alvarezi:

### **INTERPELAZIOA**

Emakumeen eta Gizonen Defentsoriak bost egunkari horiek argiratzen dituzten sexu iragarkiak direla eta emandako ebazpenak eta, batez ere, Emakume eta Gizonen Bendintasun legea betetzeko asmoa daukazu; noiz eta nola?

**Gasteizen, 2009ko irailaren 14ean**

**Aintzane Ezenarro Egurbide  
Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea**